

Alexia Lombraña Ballesteros
«Irakurtzea eta gimnasia ritmika egitea gustuko ditut»

# Maitaneren txakurra

## Maitaneren txakurra

Behin batean, Maitane izeneko neskatila baserrian bizi zen Zuri txakurrarekin.

Zuri deitzen zioten zuri-zuria zelako. Bere begiak txiki-txikiak eta urdin-urdinak ziren;




belarriak, aldiz, handi-handiak zituen primeran entzuteko. Gainera, egun osoa zaunkaka egiten zuen.

Udaberriko goiz sargori batean, Maitane

ohetik altxatu zenean, ez zuen "UAU-UAU"rik entzun. Berehala, deika hasi zitzaion:

–Egunon Zuri!

Alferrik zen. Zurik ez zion erantzunik eman.

Logelatik irten zenean, korridorean luze-luze etzanda, mihi gorri-gorria aterata arnasestuka topatu zuen. Laztandu ondoren, lepoan hartu eta tipi-tapa albaitariarenera eraman zuen.

Albaitariak auskultatu ondoren, zera esan zion:

–Bart, zer jan zuen?

–Betikoa! –erantzun zion Maitanek urduri xamar.



-Lasai, hau guztia beroaren eragina da eta ura edatea komeni zaio - esan zuen albaitariak.

Eskerrak emanez, elkar agurtu eta poza-rren etxerantz salto-saltoka abiatu ziren




Alexia Lombraña



L.H. 3. maila

Irati Zuntzunegi Dominguez

«Asko gustatzen zait uger egitea»

# New York

New york



Bazen behin familia bat errenterian bizi zena eta egun batean New yorkera joatea oporretan pentsatu zuten. Familian: aita, ama eta bi ume ziren. Hegazkinez joan ziren eta zortzi ordu egon ziren hegazkinean. Biharamunean etxean geratu ziren goiz osoan eta arratsaldean kalera irten ziren. Kalea etxeorratzez beterik zegoen. Hurrengo egunean "la estatua de la libertad" ikustera joan ziren barkuan telefono bezalako lau eman zizkioten eta telefono horrek estatuako esplikazioak ematen zituen. Ume bat denbora guztian entzuten izan zen. Azkenean esplikazio guztia bukatu eta bere familiarekin berba egiten hasi zen.




Hirugarren egunean Empire State Building ikustera joan ziren eta ikusgarria izan zen. laugarren egunean Brooklyn zubia ikustera joan ziren eta zubiaren beste puntaraino joan ziren oinez.

Brooklyn zubia oso polita zen eta oso
luzea. Bost garren egunean Broadway-ko antzokian
lion King en antzezlana ikusteko aukera izan
zuten 2 ordu inguru egon ziren eta azkenean irten
ziren. Poz-pozik zeuden ikuskizun polita izan zelako. Gero,




Disneiko pertsonaiak ikusi zituzten.
Sei garren egunean Central Park-
era joan ziren bizikleta eta guzti.
Bizikleta bidea bide bazterrean zegoen
eta parkeko gauzak ikusteko
barruraino sartu behar
izan zuten. Parke barruan
bizkletak eskuan hartuta
eta urmael bat ikustera
sartu ziren.




Eguna kanpoan eman ondoren Harlemera bueltatu
ziren eta gaz usaina izan zen etxean orduan
etxeko Maizuari ezan zioten eta gaueko orduetan
etxetik irten bear izan zuten arasoa konpondu
arte eta ala bazan edo ez bazan zar dadila
kalaba zan eta atera dadila Harlemeko etxean





Noa Ispizua Vergel

«Piszinara aitarekin joatea, parkean patinekin ibiltzea, irakurtzea, tableta eta wiia ditut gustuko»

# Noaren opariak

## NOAREN OPARIAK

2014ko Gabonak ziren. Historia polit hau pasa zen Euskal Herriko hiri batean. Hiri hori, oso polita, Gernika deitzen zen.

Gernikak zuhaitz eguna dauka baina gabon hartan gauza polit bat pasatu zen beste zuhaitzetan, gaboretako zuhaitzetan.

Gernikako auzo batean neska polit eta on bizi zen. Bere familiak asko maite zuen, bere izena Noa zen eta urte gutxi zeukan.

Egun batean Noaren amak gauzak erostera bidali zuen eta bere arropa politak ipini zituen eta kalera joan zen.

Pausoka-pausoka herritik irten zen eta baso batetara heldu zen. Berehala gaua hasi zen eta beldurrez koba batetara sartu zen.

Ala ze sorpresa!!!

Argi asko ikusi zituen eta barrurantz jarraitu zuen.



Ordu asko igaro ziren eta aita, ama eta Jerai urduri jarri ziren eta Noaren bila joan ziren motxila batekin.

Oihuka jarri ziren:

-Noa, Noa, Noa!!! Non zaude? Eta bapatean Noaren negarrak entzun zituzten

Haiek koba bat ikusi zuten, barrurantz joan ziren eta Noa ikusi zuten han etzanda negarrez. Aitak hormak begiratu zituen eta harriduraz esan zuen: -Noa, non sartu zara? Koba hau arraroa da, harri bitxiz beteta dago!

Haiekin motxila bete zuten eta Gernikarantz abiatu ziren. Pakete batzuetan sartu ondoren herriko Gabonetako arbolaren azpian utzi zituzten inork ikusi barik.

Hurrengo egunean gabon eguna zen eta jendea ohetik altxatu zenean opariak ikusi zituen eta herriko jendearen artean banandu zituzten. Olentzerok ekarritakoak zirelakoan.
Gabon zoriontsuak pasatu zituzten den-denek.





Izar Akesolo Izagirre
«Niri gehien gustatzen zaidana irakurtzea da»

# Liburu tristea

LIBURU TRISTEA

Bazen behin mutil bat eskolara zazpi urterekin hasi zena. Mutila bere gurasoekin bizi zen eta Imanol deitzen zen. Imanol oso pobrea zen eta bere ametsa bere gurasoek ipuin bat erostea zen. Bazen denda bat ere ipuin mordoa zuena. Jendeari asko gustatzen zitzaion denda, liburu asko zituelako. Dendaria oso zaharra zen eta horregaitik denda zarratzea pentsatu zuen. Dendako apalak uzten hasi ziren eta jendea gutxiago etortzen zen.

Imanolen urtebetetzea iritsi zen eta Imanolek liburu bat eskatu zuen. Bere gurasoek ezetz esan zioten diru gutxi zutelako eta erosi ezkero dirurekin eskaz ibiliko zirelako. Imanol oso triste jarri zen ez ziotelako utzi liburua erosten. Gurasoek hain triste ikusita amore eman

zuten eta erasi zioten. Dendara joan zenean liburu bakarra gelditzen zen, inork ez zuena aukeratzen marrazki tristeak zituelako. Baina Imanoli ez zion axola, orduan hartu egin zuen.
Etxera heldu zirenean Imanol liburua irakurtzen hasi zen eta oso polita iruditu zitzaion.

Bukatzerakoan bere lagunei utzi zien eta haiei ere polita iruditu zitzaien.
Liburua horri esker zabaldu zuen eta horri esker Imanolek lagun asko egin zituen





L.H. 4. maila

Oier Artetxe del Olmo

«Futbola eta eskupilota gustatzen zaizkit»

# Altxor galdua

## Altxor galdua

Orain dela urte asko mendiko herrialde batean agure pobre eta xume bat bizi zen. Gizonak ez zuen dirurik ezer erosteko eta beti hartu behar zuen ura dirua ez ziolako beste edaririk erosteko ematen. Egun batean arrantza egiteko zizareak aurkitzen zegoela altxor baten mapa aurkitu zuen.

Hurrengo egunean, altxorraren bila abiatu zen, baina bidean oztopo batekin jo zuen: basapiztiak! Baina agureak altxorra aurkitzeko gogoak zituen eta hantxe gelditu zen zain eta zain basapiztiak joan arte. Bi ordu igaro ondoren basapiztiak joan egin ziren. Aurrerago beste oztopo batekin jo zuen: ur lasterrak, baina agurearentzat ez zen oztopoa, eta aurrerantza jarraitu zuen.

Azkenean azkenengo oztopora heldu zen: ehun metroko ur jauzia. Mila urte baino gehiago zuen enbor luze batetik igaro zen. Bost ordu eman zituen enbor horretatik igarotzen, baina azkenean altxorra aurkitu zuen.

Altxorra aurkitu zuenean, ez zekien zer egin diru diamante... guztiekin eta sendeari eta, batez ere, pobreei oparitzea erabaki zuen.





L.H. 4. maila

## Gorka Kortabitarte Gonzalez

«Irakurtzea eta lagunekin jolastea gustatzen zait»

# Hiru lagunek

## HIRU LAGUNEK

Baziren behin hiru lagun on-onak: Jon, Paul eta Iker. Hirurak hamabi urte zituzten eta betidanik elkarrekin ikasi eta jolasten zuten. Jon mutil argala eta garaia zen. Ile luzea eta marroia zuen, baita begiak urdinak ziren. Gainera, oso zintzoa zen. Paulek ile horia eta begi marroiak zeuzkan, loditxoa zen baina oso bizkorra. Ikerrek ile marroia zeukan. Bere begiak oso handiak eta marroiak ziren. Hiruretatik ausartena zen.

Hiru lagunak, kostaldeko herri batean bizi ziren. Lekeition hain zuzen ere. Herrian, denek zekiten istorio bat zegoen, Atlantidan altxor berezia zegoela. Horregaitik, gure hiru lagunak, altxorraren bila joateko pirata bihurtu ziren. Itsasontzi zahar bat hartu eta berriztu zutenean, janaria eta edateko hartu eta Atlantidara abiatu ziren.

Zazpi itsaso zeharkatu zituzten baina ez zen haiek pentsatu zuten bezain erraza izan. Ia, ia, ito egin ziren olatu erraldoi baten erruz. Zorionez ez zitzaien ezer gertatu. Itsasoko munstro baten aurka ere borrokatu ziren eta hiruren artean, ordo kostata hil



egin zuten. Handik lau astetara, Atlantidara heldu ziren. Bat-batean, itsasontziak harri handi baten kontra jo zuen. Bertatik jaitsi eta altxorraren bila joan ziren. Halako batean, agure bat agertu zen altxorraren zaintzailea zela esanez eta , esan zien: -Altxorra nahi baduzue asmakizun hau asmatu beharko duzue:

-Zer dela eta zer dela, zeruan orgia egiten duela?

Hirurak pentsatzen hasi eta handik eta minutu batzuetara eguzkia zela erantzun zioten gizonari. Zaintzaileak baietz erantzun zien eta altxorraren kutxa eman zien.

Azkenean, gure mutilek altxorraren kutxa ireki zutenean, han ez zegoen ez dirurik ez urrerik, pergamino zahar bat baizik. Ireki zutenean, pergaminoan hau ipintzen zuen:

Altxorrik onena adiskidetasuna da.

Orduan gure piratak altxorra beti haien artean egon zela konturatu ziren.





Laiene Dañobeitia Atxirika
«Euskara eta kirola maite ditut»

# Olentzeroren ezustekoa

OLENTZEROREN EZUSTEKOA

Behin batean, bazen gizon bat Olentzero izena zuena. Mendian bizi zen, eta beti jantzi berdinekin joaten zen, baserritarren jantziekin. Oso alaia eta eskuzabala zen. Berak bi leku sekretu zeuzkan. Lehenengoa, zubi zaharra eta, bigarrena, lantegia. Lantegira joateko zubi zaharretik igaro behar zen.



Baina ez zen edonolako zubi zahar bat; magikoa zen. Berak baino ez zekizkien hitz magikoak, edo hori uste zuen. Gabon eguna baino egun bat lehenago, lantegira joan zen ea opari guztiak zituen prest ziurtatzeko. Baina lantegia

ireki zeneean, ez zegoen opariLik, armak baino ez zeuden. Momentu horretan astoarengana joan zen, ea eskutitzak zeuden, baina horren ordez bonbak zeuden. Olentzerok hori dena ikusi zuenean, esan zuen:

—Ez da posible, nik opariak egin eta orain armak daude leku guztietan! Ezin diot poliziari deitu, atxilotu egingo naute armak fabrikatzeagatik... Baina hori ez da egia!!!.

Momentu hartan negarrari ekin zion. Polizia aipatu eta atean zuen zain. Polizak esan zuen:

—Atxilotuta zaude!!!

Astoa badaezpada ezkutatu egin zen ukuiluan, beldurraren beldurrez. Astoak ikusi zuenean Olentzero zeramatela, haien atzetik joan zen isilka. Olentzero furgonetan sartu zuten. Astoa furgonetako atzekaldean sartu zen, inor konturatu gabe. Baina astoa gaixorik zegoen, katarroa zuen. Astoak orduan esan zuen asperenka:

—Ongi! Ez naute arrapatu!!!

Handik momentu batera entzun zen:

—Atxis! Atxis!

Badakizuenez astoa zen, baina orduan poliziak ohartu ziren Olentzero ez zegoela bakarrik eta orduan, poliziek pentsatu zuten: "Olentzero ez da dominstiku egin duena."

Eta galdetu zioten:

—Katarroa harrapatu ahal duzu?

Olentzerok erantzun zuen:

—Bai... Ondoezik nabil...

Kartzelaraino lagundu zieten. Orduan Olentzerok barre egin zuen jakinik salbatu egingo zituztela, eta esan zuen:

—Alferrik atxilotuko nauzue! Bihar gabon eguna da eta ez banauzue askatzen munduan hondamendia gertatuko da.

—Zer hondamendi? Zer dela eta? —galdetu zieten poliziek. Ume guzti-guztiak negarrez, mundu guztia etsekabeturik...

Erantzun zuen Olentzerok. Poliziak esan zuen:

—Ez da hainbesterako izango...

Momentu horretan astoak polizien gainera jauzi egin zuen. Orduan lantegira itzuli eta ohartu

ziren. hiru pertsona armak ipintzen ari zirela berriro ere. Nor eta 3 errege magoak ziren! Isilka hurbildu ziren Astoa eta Olentzero. Momentu horretan Olentzerok eta astoak harrapatu saku batetan sartu, eta zubitik behera bota zituzten. Astoak opariak egiteari ekin zion. Olentzerok esan zuen:

— Arma guzti horiek ere zubitik behera botako ditut sekula santan berriro ez ikusteko!!!

Hala bazan edo ez bazan, beti opariak jaso ditzazula gabon gauean!




AGUR BETIRAKO!!!
AAAA!!!



Unai Urrutia Oar-arteta
«Futbolean eta eskupilotan jolastea gustuko dut»

# Ilargira bidaia

## ILARGIRA BIDAIA

Oraindela urte gutxi bazeuden bi lagun, Oier eta Aitor. Espazioa gustuko zuten biek, izan ere, astronauta izan nahi zuten. Egun batean Oierrek telebistan ilargira bi pertsonentzako bidaia zozketatzen zela ikusi zuen. Oierrek berehala Aitorri kontatu zion eta biek Internet bidez eskatu zuten beraientzako zenbakia. Handik aste batera Alemaniatik jaso zuten deia irabazleak zirela esanez. Hegazkina hartu eta Berlinera joan behar zutela. Familiakoak eta lagunak aho zabalik utzita, maletak egiten prestatzen hasi ziren. Loiutik Berlinera heldu zirenean auto bat zuten zain.

- Good mornig! My name is Mario.
Orduan Aitorrek Oierreri esan zion:
- Zein garrantzitsua den ingelera ikastea eskolan.
Autoak zentro espazial batera eraman zituen,
eta bertan Txomin izeneko ingeniaari euskaldun batek
batek egiten zuen lan, bera izango zen haien irakasleak.
Froga zorrotz batzuk batzuk jarri zizkien eta mutilek
gainditu zituzten, nahiz eta batzutan zorabiatuta amaitu.
Neurriak hartu eta handik gutxira jantziak prest zituzten.
Koheteam sartzeko prestatu ziren, urduri baina pozik
zeuden. Irteera oso gogorra izan zen baina lurra oso polita
ikusten zen espaziotik. Heldu zirenean ilargira, astronautak
eta mutilak kanpora irten ziren. Aitorrek eskutuan ekarri
zuen Ikurriña jarri zuen eta Oierrek esan zuen: "Nik ere
zerbait ekarri dut." Athletiken ikurriña atera zuen. Horregatik
teleskopiotik begiratuz gero ilargian bi ikurriña ikus
daitezke.
Kohetera zihoazela estralurtar batek hau esan zien:
- Bidaia ona izan!
Euskalduna zen estralurtarra!!!

Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan
eta atera dadila idazlan koadernoan!





L.H. 4. maila

Maite Fernandez Larruzea

«Musika eta margoztea gustatzen zaizkit»

# Izurde magikoa

## IZURDE MAGIKOA

Bazen behin neska bat Oihane deitzen zena. Bere familiarekin hondartzara joan zen. Bat-batean zerbait arraroa ikusi zuen uretan. Jendeak marrazo bat zela pentsatu zuen eta ikaratuta ihes egin zuten. Baina ez! Oihanek izurde bat zela jakin zuen. Oso-oso polita zen. Bere azala urdina eta distiratsua zen. Beti pozik zegoen eta benetan maitagarria zen. Oihane, egunero joaten zen berarekin jolastera. Oso lagun handiak egin ziren. Oihanek, Urdin izena jarri zion. Hain pozik zegoen, bere lagunei kontatu ziela izurde bat ikustera joaten zela egunero, baina inork ez zion sinisten. Denak uste zuten bere irudipena zela. Oihanek bere lagunei esan zien etorteko hondartzara, Urdin ezagutzera. Urduri-urduri Oihane korrika joan zen hondartzarantz bere lagunekin. Irrikitan zegoen bere lagunen aurpegia ikusteko Urdin agertzen zenean.

-Zuri gezurra dela! -esan zuen Ikerrek.

-Bai, Oihane beti dago istorioak asmatzen. -esan zuen Sarak.

Baina itsasoaren ondora heldu zirenean Urdin ez zegoen inondik.

Ochane berari deika hasi zen baina ez zen etorri. Orduan lagunek alde egin zuten. Ochane oso txarto sentitu zen. Bere lagunek gezurti bat zela uste zuten. Orduan ideia bat burutatu zitzaion: Festa bat antolatuko zuen hondartzan bere lagunekin, Sararen urtebetetzea ospatzeko. Behar bada Urdin agertuko zen, bere lagunak onak zirela ikusten bazuen.

Hurrengo astean urtebetetze eguna heldu zen eta Ochanek festa paregabea antolatu zuen bere lagunekin. Denak ondo pasatzen ari ziren baina Ochanek Urdin nahi zuen aurkitu. Halako batean harri batekin jo zuen eta hankan zauri handia egin zuen.

-Ai nire hanka!

Denak korrika joan ziren zer gertatu zen ikustera. Orduan itsasotik Urdin izurdea irten zen; Ochaneren alboan zegoen eta negarrez ikusi zuelez bera ere negarrez hasi zen. Bat-batean Urdinen malkoa zaurira jausi zen eta... Zauria osatu egin zen! Egun horretatik aurrera denak Urdinen lagun egin ziren.





Anne Lamikiz Artetxe

«Kirol zalea naiz eta igeriketa eta saski-baloia ditut gustukoak»

# Elurrezko panpin magikoa

Elurrezko panpin magikoa

Orain dela urte batzuk Nafarroako herri batean familia bat bizi zen Aita, ama, Elene Kerman eta Elen beraien txakurra. Oso pozik bizi ziren. Egun batean beraien aitari esan zioten Pirineotara joan behar zela lan egitera bere lantegia erre egin zelako eta Nafarroan ez zegoelako lanpostorik. Familia guztiak bertara bizitzera joan behar zuen. Elenek ez zuen nahi lagunengandik urrundu. Bere amak esan zion Pirineoetan ere lagunak egingo zituela. Kermanek ere ez zuen joan nahi baina amak biak konbentzitu zituen eta bolki berri harantz abiatu ziren.

Bizitza berri bat hasi behar zuten, lagun berriak eta ez zen batere erraza. Nafarroan utzitako lagunekin asko gogoratzen ziren. Negua heldu zenean elurte ikaragarriak ikusteko aukera izan zuten. Ja, ta egunero elurra egiten zuen. Dena zuri zuri zegoen, izugarri polita. Egun batean Elene eta Kermanek elurrezko panpin dotore bat egin zuten beraien etxe aurrean. Etxetik behar zituzten gauzak hartu zituzten.

Begiak, sudurra, ahoa botoiak buruan txanel bat eta bufanda bat jarri zioten; zein panpin polita! Hurrengo egunean Elene ohetik jaiki zenean leihotik begiratu eta ikusi zuen panpina ez zegoela aurreko egunean bezala, zeukan; gero burua alde batera, gero bestera; ¡ beso bat aurrerago bitxia! mugitzen hasi zen. Kaixo esan zuen.

Hau bai harrigarria! Orduan berehala, bere aita eta bere amaren logelara joan zen gertatutakoa kontatzera. Bere amak eta bere aitak ez zuten sinestu baina leihotik begiratu eta egia zela ikusi zuten. Panpina dantzan zegoen. Kerman izartu eta guztiak joan ziren panpinarekin batera dantza egitera.

Oso ondo pasatzen zuten. Egunero ohetik jaiki eta Kerman eta Elene panpinarekin dantzan egitera joaten ziren.

Neguko azken egunetan oso arraro ikusi zuten panpina; argalago zegoen! Berehala umeak beraien aita eta amarengana joan ziren. Haiek esan zieten urtzen ari zela udaberria zetorrelako. Bi egun igaro ondoren ikusi zuten panpina desagertu zela. Elurrean zerbait idatzita zegoen, musu bat Kerman eta Elenerentzat

" Hurrengo neguan ikusiko gara berriro
ez ahaztu nitaz ",



musu bat
elurrezko panpina ♡

L.H. 5. maila



Jon Asla Urrutia

«Skatearekin ibiltzea oso gustuko dut»

# Ametsa bete nahian

## AMETSA BETE NAHIAN

Bazen behin Aitor deitzen zen mutil bat. Aitor, diru gutxiko familia batetik zetorren. Beste hiru neba-arreba zeuzkan eta bere gurasoek ezin zizkioten nahi beste opari erosi.

Aitorren lagunek, denek zuten patinete bat eta berak ere berea lortu nahi zuen. Eskolarako bidean kirol denda batean ikusitako 400€-ko patinete elektrikoa gustatu zitzaion. Bestalde, bazekien bere familian ez zuela diru hori lortuko, horregatik plan bat bururatu zitzaion: lanean jartzea.

Inoiz ez zuen pentsatuko zein gatz izango zen lanean jartzea.

Astelehen batean klaseak amaitu ondoren, bere herriko denda guztietan galdetu zuen ea lanpostu bat lortzea posible zen, baina denetan erantzuna berdina izan zen: oso gaztea zela eta gutxienez hamasei urte izan behar zituela lanean hasteko. Orduan etxerantz abiatu eta eskolako lanak egiten hasi zen.

Hurrengo egunak ia-ia berdinak izan ziren: etxetik eskolara, eskolatik lan bila eta berriro etxera.

Bere ideia galdutzat ematekoa zegoela, beretzat egokia zen lanpostu bat suertatu zitzaion. Eskolak amaitu ondoren, arratsaldero, herriko biltegi txiki batean korrespondentziako kutxak garbitu behar zituen.

Eta horrela asteak, hilabeteak eta urteak pasa ziren ia bere familiarekin eta lagunekin egoteko astirik izan gabe: etxetik eskolara, eskolatik lanera eta lanetik ohera.

Egun batean bere bakartasunean, zera pentsatu zuen: benetan merezi al du nire leizi guztia alboz uztea patinete baten truke? Orduan ulertu zuen dena ezin dela lortu norberak nahi duenean. Horregatik bere lanpostua utzi eta bere betiko leizi lasaira bueltatu zen.

